


# ZUBITXO: ERREKATIK KOLEKTORE



*Erreka duela bost urte.*

**Z**ubitxo erreka oso zaharra da. Mendi bat sortu edo osatzen dihoan bezalaxe, errekek ere denbora asko behar dute bere osaketan. Horretarako, lezoar guztien adinaren batuketa baino askoz urte gehiago behar izan ditu. Milaka eta milaka urte.

Erreka bat, urak bilatutako bidea da.


Gizakien gorpuzaren antzera eta zati ezberdinak elkarlotuak funtzionatzen duten bezalaxe, errekek ere, naturan, bere funtzioa dute baina beti ere beste zatiekin elkartuz (mendia, itsasoa, landareak...). Erreka bat gure odol zainen antzekoa da. Urari mugimendua ematen dio itsasoa eta euriaren arteko lotura osatuz.

Honela bada, erreka bat ez da ur korronte bat bakarrik. Oso mundu edo ekosistema berezi eta konplexua da eta bere zati guztien arteko erlazioak ere oso konplexuak dira (ura, erribera, landaretza, fauna...).

Milaka eta milaka urtetan osatzen joan den ekosistema berezi hau ordea, urte gutxitan aldaketa ugari ari da jasaten. Etengabeko erasoek hiltzorian utzi dute.

Lan honen bidez, erreka eta bere garrantzia ezagutu, bere gaur egungo egoeraz jabetu eta berreskuratzeko ahaleginen aldeko urratsen berri eman nahi dizuegu.





Irudian ikus dezakegun bezala, Zubitxo erreka baditu Jaizkibel aldetik eta Herriondo bailaratik ura biltzen duten zenbait adartxo. Bakoitzaren izenik ezagutzen ez badugu ere non sortzen diren aipa dezakegu.

Adar garrantzitsuenetakoa, garai batean Iparragirre eta gaur egun Bustintxulo ize-nez ezagutzen duguna litzateke. Honek, Jaizkibelgo Tiñelu aldetik hasi eta bertako urak biltzen ditu gaur egungo Ijurko auzo bazterretik pasatuz. Garai batean, adar honetan bazeuden GOIKOERROTA izeneko errota bat (bertan garia eta artoa egotzen zen) eta garbileku eder bat. Azken honen aztarnak gaur egun ere ikus ditzakegu.

Bigarren adar bat, gaur egungo harrobian jaiotzen da eta kaxerna baserri ingurutik, Pattitturriko ura bildu eta Algeposa azpitik Lopene ondora jeisten da, bertan Pysbetik datorren adartxoarekin elkartuz.

Hirugarren bat Herriondo bailaratik datorkigu eta Mikura baserri ondotik pasa Lezoko garbilekua.





eta aipatutako beste bi adarrekin elkartzen zaigu. Garai batean Kabitte baserri ingurutik ere beste adartxo bat jeisten zen.

Azkenik, gaur egungo Villa 1, 2, 3tik beste adartxo bat gehitzen zaio eta denon artean, Zubitxo erreka osatuz Pasaia badiara botatzen dituzte jasotako urak.

Azken zati honetan eta gaur egungo Tiñelu elkarte inguruan bazegoen beste garbileku bat eta piska bat beherago ERROTAZAR izeneko errota ospetsua.

## ETENGABEKO ERASOAK

Ikus ditzagun orain jasan dituen eta jasaten ari den erasoak: Alde batetik ur kopurua galdu du. Mendiak baso erregulatzaileak suntsituak daude eta euria egiten duenean. Jaizkibel mendiak gaitasun gutxi du ur hori mantentzeko. Ondorioz eta mendi maldatsua izanik, ura bapatean jeisten da uholde arriskua haundituz. Era berean, eta Jaizkibel etengabeko erosio prozesu batean dagoenez, gero eta lur gehiago ari da galtzen. Lur azaleko ongarriak beheruntz doaz eta mendian erosioa areagotuz gain erreka eta bailaretan sedimentazioa edo lur eta hondar pilaketa ematen da.

Zubitxo erreka gaur egun ur gutxikoa da baina euri asko egiten duenean ezin du dena irentsi uholdeak sortuz. Denok ezagutzen ditugu Lezon edukitako uholdeak, azkena duela hilabete gutxi gertatutakoa.



Biztanleen beharrek ere gora egin dute. Gaur egungo industri eta biztanleek behar




duten ur kopurua, menditik datorrena baino haundiagoa da eta Añarbetik ekarri behar da denak asetzeko. Biztanle kopurua gorantz doan neurrian erreka ura galtzen joan da.

Bestalde, egin diren eraikuntzek ez dute inolaz ere kontutan hartu ez errespetatu erreka bera, eta azken urtetan zenbait zatitan erriberak suntsitu, kanalizatu eta estali ere egin dute. Honek errekaen isolamendua dakar.

Estalketak, Orbegozo, Celaya, Ijurko auzoa, Elias Salaberriako etxeak, errepideak etab. eraikitzerakoan eman dira. Kanalizazioak berriz, Arretxene, Hipolito Gezalako etxeak eta kaia inguruko lantegiak egiterakoan. Leku hauetan erreka erriberarik gabe geratu da. Azken proiektuetan ere erreka estalketa ikusten da (Polikiroldegi ingurua, Lopene...).

Honela bada, gaur egun erribera mantentzen duten leku bakarrak errekaen jaiotekuak dira eta hauetako asko ere dagoeneko erasotuta izan dira zuzenki. (Harrobi ondoan hondakinez estali dute aurten).





Itsasoarekin topo egiten zuen lekua ere azken urtetan izugarri aldatu dugu. Irudietan ikus dezakegun bezala, garai haietan Kantauri itsasoa gaur egungo Billa 1, 2, 3 pareraino igotzen eta eta itsaz behera zenean, padura zoragarri eta aberats bat geratzen zen. Gaur egun ere marea bizietan leku horretaraino heltzen da.




Urari dagokionez eta bitxikeri moduan, Zubitxok gutxienez hiru ur mota biltzen dituela esan genezake (ur hondartsua, burnitsua eta karetsua).

Uraren kalitate eta garbitasunak ere eraso ugari jaso ditu, alde batetik industriek botatako ixurketegatik hauek sustantzi kimiko zein koipeak ixurtzen bait dituzte (denok gogoan ditugu Orbegozok egindako gasoil ixurketak).

Etxeetako komuneko hondakinek ere berea egiten dute. Biztanle kopurua goruntz doan neurrian ixurketa kopurua ere gehituz doa, sustantzi kimikoena (detergente, lejia, etab.) bezalaxe. Denbora gutxian, erreka lezoarren kolektore bihurtu dugu eta gaur egun ere, Kale Nagusiko etxe batzuk ez ezik (hauek zuzenean kaiara botatzen dute), gainontzeko guztiek Zubitxo erreka botatzen ditugu gure hondakinak.

Zubitxo gaur egun ur gutxikoa izanik kutsadura arazoa areagotu egiten da. Kutsadura honek ondorio latzak eragin dizkio bertako faunari. Uretan bakterio ugari daude eta komunetako kaka eta pixak bereganatzeko oxigeno ugari behar dute. Hondakin kopurua haundiegia baldin bada ura oxigenorik gabe geratzen da eta denok dakigun bezala oxigenorik gabe ez dago bizitarik.



## LANDARETZA ETA FAUNA

Erreka bera zigortu den neurrian, inguruko landaretza eta faunak ere zigortuak izan dira. Goikaldeko zatietan topa ditzakegun espezieak ugariagoak dira nahiz landare nahiz animali aldetik.

Erreka behera doan neurrian aberastasuna galduz doa baina hala ere oraindik, zeuden animali eta berez leku horietan egokienak diren landareen berri ematen diguten aztarnak topa ditzakegu. Ur zikina eta erriberak suntsituak daudenez zenbait lekutan ia erabat desagertuta dago.



Fauna aldetik eta arrainei dagokienez, oraindik angula eta aingira batzuk ikus ditzakegu. Hauek Pazifikoko Sargagos itsasotik Euskal Herrietako erreketaraino etortzen dira bertan arraultzeak jarri eta berriro itsasoko beste puntara itzuliz.

Ur lehorrekoen artean igel ezberdinak, tritoiak, apoak etab. topa ditzakegu. Baita ere uretako barrazkilo ezberdinak, lapa txikiak, zizareak, uretako eskorpioiak, "sangüjuela", libelulak eta xomorro ezberdin ugari.





Hegazti aldetik xomorrojaleak ikus ditzakegu (enarak...). Lezoar askok kontatzen duten moduan, orain dela ez urte asko makina bat angula eta aingira izaten zen, txirlak, hegazti ezberdinak, eta gaur egun ia pentsaezinak diren animali motak.

Gutxigorabeherako irudi bat egiteko gaur egungo Txingudi badiako padura eta bere faunaren aberastasunarekin konparatzeko modukoa.

Landaretza aldetik ere gaur egun aztarna batzuk topa ditzakegu: lizarrak, makalak, sahatsa ezberdinak, udareondoa, pikondoa, zumarra...

Erreka bazterretan etortzen direnak baina era berean beheko aldeak desagerturik daudenak ere ezagutzen ditugu: haltza, urritza...

Beste landare aipagarri batzuk lirio horia, ihiak, berroak etab. izan daitezke.






## ZUBITXO BERRESKURA DAITEKE

Errekaren egoera larria ikusirik, bereskuratzeko denbora eta laguntza haundia behar du.


Erriberei dagokienez, lehen pausoa, estali gabe geratzen diren zatiak babestea litzateke eta ahal den neurrian berreskuratzea leku horietan egokituko diren espezieaz berlandatuz (lizarra, haltza, sahatsak, makalak...). Honela ekosistema berreskuratzen saiatuko ginateke.

Erriberak ez estaltzearen onurak edo alde mesedegarriak ugariak dira:


- 1.- Errekaren ura erregulatzen du, batzutan ura xurgatuz eta bestetan poliki poliki askatuz. Uholde arriskua gutxitzen da.
- 2.- Bazterretako landareen sustraiek urak jeisten duen lurra eusten dute erosioari aurre eginaz.
- 3.- Landareek errekarren ura, argia eta hezetasuna mantentzen dute, beste zenbait espezie bizitzeko baldintza egoki eta bereziak sortuz. Era berean ingurua oxigenatzen dute.
- 4.- Zuhaitz eta landareek uraren kutsadura filtratu dezakete zenbait sustantzi bereganatuz.




1. ERREKA BIZIA.



2. ERRIBERA ALDE BAKARRETIK



3. KANALIZATUA



4. ESTALIA



*Erreka ondoan  
ateratako  
udareondo  
berezia.*



Ura ugaritzeko modua mendiak berpoblatu eta dauden basoak babestera eta zaintzea litzateke.

Ur kalitateari buruz jakin badakigu, ixurketa gehienak etxeetakoak direla. Azterketa zehatz eta egoki bat egin ondoren ixurketa horiek ahalik eta azkarren moztea litzateke mesedegarri.

Azkenik errekek, zainketa eta garbiketa ere beharko luke zabor bilketa.

Europako zenbait herrialdetan dirutza bat ari dira gastatzen ibai eta erreketako erriberei bere baldintza naturalak itzultzeko, urte batzuk lehenago beste hainbat diru gastatu zuten hormigoi eta estalketan.

Gur oraindik akats berdinean ez erortzeko garaiz gabiltza.

## **LEZOKO EKOLOJI TALDEA**